

# PASAIKO GAZTERIA POLITIKAREN ILDO ESTRATEGIKOAK

Pasaia, 2005eko iraila

# DOKUMENTUAREN EGITURA

## 1. GAZTERIA POLITIKAREN DEFINIZIOA

Kontzeptua

Gaur egungo Gazteria Politika

## 2. GAZTERIAREN EGUNGO ERREALITEA

## 3. PASAIKO GAZTERIA POLITIKA

Historia eta egungo egoera

## 4. PASAIKO GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK EPE LUZERA

Helburu zehatza

Helburu nagusiak

## 5. PASAIKO GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK EPE MOTZERA (2005)

## 6. GAZTERIA POLITIKA GARATZEKO TRESNAK

Koordinazioa

Gazte ekipamenduak

## 7. GAZTERIA POLITIKA GARATZEKO BALIABIDEAK

Giza baliabideak

Baliabide ekonomikoak



# 1. “GAZTERIA POLITIKA”REN DEFINIZIOA



## Gazteria Politika kontzeptua

Gazteria politikaren helburu nagusia **haur, nerabe eta gazteen heziera prozesua, heldutasunera iristeko prozesua eta emantzipazio prozesua erraztea da, beti ere hiritartasun aktiboaren kontzeptutik abiatuz.**

Emantzipaziorako  
bidean lagundu

Hiritartasun  
aktiboa



## Gaur egungo gazteria politika EAEn

### Euskal Autonomia Erkidegoan

#### I. Gazte Plana 1999-2001

- Lana eta lan munduratzea
- Irakaskuntza arautua eta ez-arautua
- Etxebizitza
- Osasuna eta bizi kalitatea
- Gazteen aisia eta kultura

#### II. Gazte Plana 2002-2005

- Baloreen garrantzia azpimarratzea
- Planari bultzada berria (gazteen, gizarte eragileen, beste herri erakundeen eta udalen parte-hartzea)
- Plana berrorientatzea

Plana udaletaratu beharra

### Gipuzkoako Lurraldean

#### Gipuzkoako Foru Aldundia

Hona hemen eskainitako zerbitzuak:

- Dokumentazioa eta ikerlana
- Formazioa
- Aholkularitza
- Baliabideen transferentzia

Lau programa estrukturalak:

- Informazioa
- Aisia hezitzailea
- Sustapena
- Emantzipazioa



## 2. GAZTERIAREN EGUNGO ERREALITATEA



# Haur, nerabe eta gazteen egungo errealitatea

## 1. HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ERRALITATEAREN AZTERKETA

### GIZARTEAN EMANDAKO ALDAKETAK:

- ◆ Gizarte joerak (aldaketa demografikoak, famili egitura aldaketak...)
- ◆ Joera ekonomikoak: globalizazioa, lan prekaritatea,...
- ◆ Kultur joerak: kontsumismoa eta uniformizazio kulturala, kulturartekotasuna, ...



### ONDORIOAK

### HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EGOERA ETA BEHARREN ALDAKETA


## 2. NERABEAK ETA GIZA BAZTERKETAREN ARRISKU EGOERA

**Arrisku egoera: bizitzaren kontextu bat edo gehiagotara egokitzeko eta inguruak bere kontextura egokitzeko zailtasunak egotea.**

Heziera prozesuan nerabe hauek besteek baino behar gehiago izango dituzte, hauen baliabide pertsonalak, familiarrak eta testuingurukoak besteenak baino mugatuagoak dira. Nerabe hauen baldintzak eta gaitasunak ez badira nolabait sendotzen, etorkizunean desafiliatzea, menpekotasunak eta gizarte bazterkeria agertu daitezke.

# Haur, nerabe eta gazteen egungo errealitatea

## 2. NERABEAK ETA GIZA BAZTERKETAREN ARRISKU EGOERA



Administrazioak nerabeentzako antolatzen duen eskaintza, **hezitzailea** izateaz gain, **integratzailea** eta **prebentiboa** ere izan behar da.

**Udal eskaintza komunitarioak nerabe hauei egokitzeko etengabeko sailakera egin behar du, harremanetan oinarritutako eskaintza diseinatu behar da, non garrantzitsuena ez da aktibitatea bera, baizik eta eskaintza horri esker sortzen diren harreman hezitzaileak.**



### **3. PASAIAKO GAZTERIA POLITIKA HISTORIA ETA EGUNGO EGOERA**



## Gazteria eta kirol saila

1990

> Gazteria ikerketa egin zen: izaera propioa izan behar du eta aurrekontu eta giza baliabide gehiago behar dituela ondorioztatu zen.

1993

> Gazteria eta Kirol departamentua sortu zen .  
> Gazte taldeen koordinakundea: gazte elkarteen bilgunea.  
> 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzako Abenturaz Blai udalekuak.  
> Udako kirol kanpaina.  
> Gazteriaren astea.  
> Gabonetako Haur Jaia (aisialdi taldeekin batera).  
> Informatzaile lanpostua kaleratu zuten, eskaintza bertan behera gelditu zen.  
> Sustapen ildoak: dirulaguntzak, elkarlana eta lokalen lagapena.  
> Gazte eta adingabeen marjinazioaren prebentziorako programa-n partehartzaile gizarte zerbitzu eta beste eragile batzuekin batera. Kale hezitzaileen programa sortu zen.  
> Ikastaroak.  
> Nazioarteko Txontxogilo Haur Jaialdia.  
> Gipuzkoako gazteentzako komiki lehiaketa.  
> Natura eta kirola, 18 -30 adin tartekoentzat eskaintza.

1994

> Donibane eta Trintxerpeko Ludotekak gazteriarena ardura izatera pasa ziren.

1998

> Antxoko Ludoteka jarri zen martxan.  
> Arronkaundieta Udal aterpetxea.

1999

> "A Pabela" produkzioak, gazteentzat zine emanaldiak.

2000

> Auzolandegiak.

## Gizarte Ekintzako saila

1986

- > 7-14 urte bitarteko adingabeentzat udako kanpaldiak antolatu zituzten.
- > Koordinazio sarea eratu zen, adingabe eta familiekin esku-hartzearen eta jarraipen lanak egiteko.

1987

- > Lanbide hastapenerako lehenengo tailerra sortu zen.

1988

- > Droga menpekotasunerako udal programa abian jarri zen.

1993

- > Gazte eta adingabeen marjinazioaren prebentziorako programan partehartzaile gazteria eta beste eragile batzuekin batera. Kale hezitzaileen programa sortu zen.
- > Programa honetatik bideraturiko jarduera batzuk: Eskola motibaziorako tailerrak, ileapaindegi tailerra, Trintxerpeko bizikleta tailerra,...

2002

- > Afektibitate eta sexualitateari buruzko programa jorratzen ari da, 12-18 adin tarteko nerabe eta gurasoei zuzendua.



## 4. PASAIAKO GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK



# HELBURUAK EPE LUZEAN



5

Haurrak

Nerabeak

Gazteak

Gazte helduak

29/35

# HEZIKETA PROZESU BAT

(BALOREAK, OHITURA OSASUNTSUAK, ...)

## HEZIERA ETA EMANTZIPAZIORAKO BIDEAN LAGUNDU BALIABIDEAK EMANEZ

ANTZEMAN

BEHAR  
EZBERDINAK,  
ERRONKA  
EZBERDINAK

DISEINATU

- INFORMAZIOA
- AISIA HEZITZAILEA
- SUSTAPENA
- EMANTZIPAZIOA

ZERBITZU  
ETA EKIPAM  
EZBERDINAK  
  
PROGRAMA  
EZBERDINAK

# Gazteria politikaren helburuak

Gazteria politikaren helburu nagusia *haur, nerabe eta gazteen heziera prozesua, heldutasunera iristeko prozesua eta emantzipazio prozesua erraztea da, beti ere hiritartasun aktiboaren kontzeptutik abiatuz.*

Helburu zehatz bat

Gazteria Zerbitzua udalean eta udalerrian garatu

Baliabideak

Ekonomikoak

Espazialak

Harreman sarea

Giza baliabideak

Helburu nagusia

Informazio programa

Sustapen programa

Aisia hezitzailea

Emantzipazio programa


Hizkuntza normalkuntza

Integrazioa


Aukera berdintasuna

## INFORMAZIO programa

**Informazioa haur, nerabe eta gazteen eskura jartzen den beste baliabide bat da gizartean integrazio osoa lortu dezaten; hau da, bizi-proiektu propioa eta autonomoa izan dezaten.**



### PASAIA





# AISIA HEZITZAILEA programa

## Heziketa kontzeptuaren ikuspegi aldaketak

Lehen

Heziketa jasotzaileak haur eta gazteak soilik dira

Familia eta eskola heziketaren arduradunak

Gaur egun

Pertsona bizitza osoan zehar hezitzen da

Gizarte eremu eta esparru ezberdinak heziketaren arduradunak

Aisian burutzen diren ekimen, jarduera eta aktibitateek gizakion heltze prozesu, gizarteratze eta balore ezberdinen jabetzan izugarrizko balioa eta garrantzia dute.

AISIA HEZITZAILEA: haur, nerabe eta gazteen eskariak kontutan harturik, aisialdian antolatzen den eskaintzak helburu hezitzaileak ditu, talde horien oreka pertsonala lantzea, balioen hezkuntza indartzea eta sormena zein ekimen pertsonaleri bidea ematea.

## PASAIA

Haurrentzako aisia hezitzailearen eskaintzak baliabide sare garrantzitsua du.

Hutsunea nerabe eta gazteen alorrean



Gaztelekuak sortu eta hezitzaileek beraien lana burutu ahal izateko aurrekontuaren igoera bat beharko litzateke.

## SUSTAPEN programa

Sustapena gazteen adierazpena, ekimena eta gazteen parte-hartzea bultzatzea da.

Helburu talde ezberdinak

Estrategia ezberdinak

Baliabideak eskaintzeaz gain norbanakoen eta elkarten parte-hartzea bultzatu behar du.

Sustatzeko moduak

Aisia hezitzailea

Baliabide eta euskarrien trasferentzia

Prestakuntza eta aholkularitza

Informazioa eta dokumentazioa

### PASAIA

Azken garai hauetan Pasaiako Aisi elkarte eta taldeen makalaldi bat identifikatu da.

Udalaren erantzunkizuna da elkarte eta talde hauen sustatzena bultzatzea.



## EMANTZIPAZIO programa

**Emantzipazio programaren helburua bizi baldintzak hobetzea da (lana, etxebizitza, heziketa,...) gaztarotik heldutasunerako igaroaldia errazteko.**

Arlo horietan lehen mailako erantzunkizuna dutenak beste batzuk dira, are gehiago Pasaia udalerraren tamaina kontuan hartuta. Beraz, ez dagokio Gazteria eta Kirol arloari emantzipazio politikak definitzea.



# HELBURUAK EPE MOTZEAN (2005-2006)




## Epe motzeko helburua

**Pasaiako haur eta nerabeak babestu eta sustatu. Gizarte bazterketako arrisku indikadoreak agertzen dituzten haur eta nerabeak bereziki kontuan hartuko dituzten programak diseinatu eta abian jartzea.**

Osagarriak izango diren bi prebentzio mota landuko ditu udalak: espezifikoa eta inespezifikoa

### Prebentzio espezifikoa

Bazterketa soziala pairatzeko arrisku gehien duten adin txikiko nerabeei zuzendua



# Epe motzeko helburua

## Prebentzio inespezifikoa

Nerabe guztiei zuzenduta, gizarte bazterketako arrisku indikadoreak azaltzen dituzten nerabeen integrazioa bereziki kontuan hartuz.

### Jarduerak

Sailarteko koordinazio markoa sortu: marko kontzeptuala eta marko operatiboa (gizarte izaerako sailak)

Pasaiako gazteria politikaren ildo estrategikoak finkatu epe motz eta luzean

Pasaiako gazteria politikaren ildo estrategikoak udalean eta udalerrian sozializatu eta kontrastatu

Gazteria eta kirol saila eta gazteria eragileen arteko foroa ireki eta sendotu

Gazte intereseko elkarleen sustapenerako programa berezi bat diseinatu eta martxan jarri

Pasaiako barrutietarako Gazteleku proiektuak definitu

Aisia hezitzaile programa berezi bat diseinatu eta martxan jarri nerabeentzat

Ekipamendu beharrei erantzuteko epe ertainerako gazte ekipamendu programa bat martxan jarri



## 6. PASAIAKO GAZTERIA POLITIKAREN TRESNAK



# Gazteria politikak garatzeko tresnak

## 1. KOORDINAZIOA

### UDAL BARRUKOA

Gazteria eta kirol batzordea

Lan taldea

Udal osoaren  
gazteekiko  
konpromiso integrala

Gazteria eta kirola  
eta gizarte zerbitzu  
sailen arte  
koordinazioa

Gainontzeko gizarte  
izaerako sailak

### SARE BEREZIA

Haur, nerabe eta gazteen heziera eta emantzipazio prozesua laguntzeko helburuarekin udalak sustatutako gazteria eragileen arteko lankidetza sistema iraunkorra da.

### PASAIAKO ERAGILEEN ARTEKO TOPAGUNEA

Pasaiako gazteria politikak garatzeko gune horren jarraipenaren premia du. Gunearen dinamizazioaz Gazteria eta Kirol teknikaria arduratzen da.





## Gazteria politikak garatzeko tresnak

### 2. EKIPAMENDUAK

Zerbitzu, programa eta ekintza ezberdinak **garatzeko azpiegiturari** deitzen zaio **ekipamendua**.

Ekipamenduak **ezinbesteko bitartekoak** dira gazteria politika garatu ahal izateko.

#### PASAIAN

##### HAURRAK

Hautzaroari zuzendutako ekipamendu sarea dago:

##### Ludotekak

Harrera handia du eta familientzat berebiziko garrantzia.

##### NERABE ETA GAZTEAK

Ekipamenduetan gabezia ikaragarria dago.

Gazteria Politikak garatu ahal izateko eta dauden eskaera eta arazoei erantzuteko beharrezkoak dira:

- nerabeei zuzenduriko gazteleku sarea
- gazteentzako informazio bulegoa



## **7. PASAIAKO GAZTERIA POLITIKARAKO BALIABIDEAK**



## Gazteria politikak garatzeko baliabideak

### GIZA BALIABIDEAK

**Udalak beharrezko giza baliabideak jarri behar ditu Pasaiko Gazteria politika garatu ahal izateko eta Gazte Plan honek dakartzan erronka berriei aurre egiteko.**

Azken urteetan sailean lanak gora egin duen arren, giza baliabide teknikoak ez dira handitu, ondorioz, sailak gainezka egin du.  
Eginezko egiten da orain arte abian dauden programen kudeaketan aurre egitea eta are gutxiago plan honek ekarriko dituen jarduera berriei heltzea.

### BALIABIDE EKONOMIKOAK

**Planak ekarriko dituen jarduerak burutzeko beharrezko baliabide ekonomikoak bermatu behar dira.**

Ekipamenduak gutxieneko azpiegiturak izan behar dituzte.

Jarduera horiek aurrera eramateko perfil hezitzailea duten profesionalak behar dira.

